



IGELDOKO SAN PEDRO ELIZA
A MAILA**AITA ORKOLAGA PASEALEKUA 2**

Ez dago jatorrizko proiekturik Udal Artxiboan

Deskribapena

Nabe bakarreko eliza, Ramon Cortazarren 1904ko proiektuaren ondoren (planoa) altueran zabalduakoa. Izan ere, alboko hormak hiru metro igo eta fatxadako baoak aldatu zituzten. Nabeak, hegoaldeko fatxadan, sarbideko karrerape bat eta dorre bat ditu atxikita, eta, iparraldeko fatxadan, erantsitako bigarren eranskin bat. Errepidearena baino kotxa baxuagoan dago eta, gainera, dorreari atxikitako bizitegi eraikin bat dauka (jatorrian, bikarioaren etxea). Sarbidea karrerape horren erdian dago; hau da, elizarekiko alboka. Karrerapearen mutur bakoitzean eskailera bana dago: bata kanpoko, errepidera sarbidea duena, eta bestea duela gutxi eraikitakoa, karrerapearen ardatzean dagoen dorrerako sarbidea duena. Elizaren hormak harlangaitzezkoak dira, eta karrerapea eta dorrea, berriz, harlanduz eraikita daude. Oinplanoa nabe bakarrekoa da eta gurutzeriako bobeda zarpiatuak ditu. Korua zurezkoa da eta harlanduzko arku beheratu baten gainean dago. Era berean, aipatzeak dira alboko kapera, gurutzeriako bobeda batez estalia eta harrizko nerbioak dituena, eta arkiboltak dituzten nabeko bi leiho. "Santiago bidea" multzo monumentalean sartuta dago.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen B babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko erregimena:
"Santiago bidea" multzo monumentalean sartu izanaren ondoriozkoa (halakotzat deklaratu zuten urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuaren bidez).